

Tabakoaren aurkako Legea izenekoa eta kirolean duen eragina: lehen hurbilketa bat

Juantxo Landaberea Unzueta

2006ko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean, bere zatirik handienean¹, 28/2005 Legea, abenduaren 26koa, tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzkoa eta tabako-produktuen salmenta, banaketa, kontsumoa eta publizitatea arautzekoa. Lege testu hori, hedabideetan *Tabakoaren aurkako Legea* deitua, 2005eko abenduaren 27an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Bada, 2005eko abenduaren 26ko 28/2005 Legeak kirol munduan eragin handia izango duenez, komenigarria da kirolari zuzenean edo zeharka eragiten dioten legezko aurreikuspen batzuetara xumetasunez hurbiltzea. Legea aplikatzeak zalantza ugari sortzen dituen heinean, kirol munduan azaldutako zalantza batzuei erantzuten saiatuko gara ondoko lerrootan. Ohartarazi behar da, hori bai, lege testua oso zehaztugabea dela alderdi batzuetan, eta interpretazio zalantza asko pizten dituela. Horregatik, Legea gero erregelamenduz garatzea falta denez, behar bezalako zuhurtziaz hartu behar dira agiri honetan egiten ditugun gogoeta laburrak.

Legearen alderdi batzuk iruzkintzen hasi aurretik, egoki da aipatzea ez direla berriak kirol arloan salmenta, kontsumo edo publizitate aldetik tabakoari jarritako mugak. Arauzko mugen ezin konta ahala adibide jar genitzake. Esate baterako, Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueretarako Baldintzen Erregelamendu Orokorra onartzeari buruzko 1982ko abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretuak 59.1.c artikuluan xedatu zuenez, ikusleek ezingo dute "*erre ikuskizunetarako diren lokal itxietan, ez bada gune edo gela berezietan, hau da, enpresak berariaz seinatu eta higiene eta aireztapen baldintza egokiak bete behar dituztenetan*". Beste adibide bat da 192/1988 Errege Dekretua, martxoaren 4koa, herritarren osasuna babestearren tabakoa saldu eta erabiltzeko mugei buruzkoa, lokal itxietan diren kirol ikuskizunetan tabakoaren kontsumoa dagoeneko debekatzen zuena. Era berean, xedapen batek baino gehiagok mugatu izan dute kirol guneak erabiltzeko aukera tabakoaren publizitatea egiteko.

2005eko abenduaren 26ko 28/2005 Legeak arau orokorra izateko asmoa du, aurreko araudi guztiak sistematizatzen dituena, baina neurri berriak eta zorrotzagoak jartzen ditu bi norabidetan: alde batetik, kerik gabeko gune gehiago jartzen dira, eta tabakoaren salmenta mugatzeko neurri berriak ezartzen dira; beste aldetik, tabakoaren publizitate agerpen guztiak mugatzea nahi ditu Legeak.

Kirolari zuzenean eragiten dioten lege neurrien artean nabarmentzekoa da debekatuta dagoela tabakoaren salmenta eta banaketa "*kirol zentro eta instalazioetan*", edonolakoak izanda ere, baita aire librean daudenetan ere.

Halaber, ez bakarrik autonomia erkidego bakoitzak definitutako tokietan edo guneetan debekatzen du erretzea, baita ere kirol instalazioetan eta kirol ikuskizunak izaten diren tokietan, non eta aire librean ez diren. Alegia, kirol instalazioak edo kirol ikuskizunak aire librean badira, orduan badago erretzea. Legeak ez du definitzen zer jotzen den aire libreko gunetzat; beraz, haren erregelamenduzko garapenak definitu edo mugatu beharko du kontzeptu hori zehazki. Oraingoz, hedabideetan argitaratzen ari diren interpretazio guztiak bat datoz, kirol instalazioek

¹ Hala ere, III. kapituluko arau guztiak eta IV. kapituluko arau batzuk Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartu ziren indarrean: 2005eko abenduaren 27an.

harmailak estalita eduki arren, jokalekua estali gabe badaukate, aire libreko instalaziotzat jotzen direla halakoak oraindik. Beste zalantza bat ere sortzen da aire libreko instalazio horiei buruz, alegia, ea erretzeko aukera kirol instalazio osora zabaltzen den, haren osagai guztiak hartuta (jokalekua, harmailak, aldagelak, sarbideak, eta abar). Legearen interpretazio logiko baten arabera, ordea, debekatuta behar luke aire libreko instalazio horietako gune itxietan erretzea.

Beraz, aire librean ez diren kirol instalazioetan edo kirol ikuskizunetan, ez hango tabernetan edo jatetxeetan, nahiz eta zuzenean kanpora ematen duen irteera eduki, ez dago erretzerik, eta ez dago erretzeko guneak egokitzerik. Legeak 8.1.c artikuluan dioenez, badago erretzeko guneak egokitzea taberna, jatetxe eta bestelako sukaldaritza-toki jakin batzuetan, ezaugarri jakin batzuk betetzen badituzte, eta *“ez badaude 7. artikulua dioenaren arabera erretzerik ez dagoen zentro edo tokien barruan (”kirol instalazioak eta kirol ikuskizunak izaten diren tokiak, aire librean ez badaude, behintzat”).*

Beste zalantza bat sortzen da herri administrazioen eta zuzenbide publikoko entitateen kirol zentroei buruz. Horretaz, 7.b artikulua erabat debekatu du erretzea *“herri administrazioen eta zuzenbide publikoko erakundeen zentro eta bulegoetan”,* inolako ñabardurarik edo salbuespenik gabe. Debekuak ez ditu bereizten zentro publikoak zerbitzu moten arabera –kirol zentroak, osasun zentroak, kultur zentroak, administrazio zentroak, eta abar–; beraz, ulertu behar da debekuak zentro publiko guztiak hartzen dituela, baita kirol zentroak ere. Bigarrenik, 7. artikuluko aipatu zatiak ez du inolako salbuespenik egiten, beste zati batzuek ez bezala, aire librean dauden administrazio zentroetan erretzeko debekuari dagokionez.

Gargi utzi behar da Legeak arau hauste arintzat jotzen duela erabateko debekua dagoen guneetan edo berariaz egokitutako guneetatik kanpo erretzea. Arau hausletzat jotzen ditu, baita ere, erretzeko debekuaren berri taberna-jatetxeen sarreran ematen ez dutenak. Arau hauste arinak 30 eurorainoko isunarekin zigortuko dira, araua behin bakarrik hautsiz gero, eta 30 eurotik 600 eurorainoko isunarekin, berriz, bestelako kasuetan. Era berean, arau hauste larritzat jotzen du *“erretzeko guneak egokitzerik ez dagoen establezimenduetan eta tokietan erretzeko guneak egokitzea”* edo *“erabateko debekua dagoen tokietan edo berariaz egokitutako guneetatik kanpo erretzen uztea”*. Arau hauste larriak 601 eurotik 10.000 eurorainoko isunarekin zigortuko dira.

Argitu behar den auzietako bat da ea noiz betearazi daitekeen Legea. Kirol instalazioen edo kirol ikuskizunen arduradun batzuek zenbait hedabidetan² adierazi dutenez, Administrazioak ez die inolako jakinarazpenik bidali, eta horregatik, ez dakite beren kirol instalazioak erretzea debekatutako guneen kategorian sartzen ote diren. Hori dela eta, esan behar da, arauak, oro har, indarrean sartzen direnetik bete beharrekoak direla, inolako jakinarazpenik bidali beharrik gabe, eta *“legeen berri ez jakiteak ez duela haiek betetzetik salbuesten”* (Kode Zibileko 6.1. artikulua).

Jende askok galdetzen du ea zeinena izango den erantzukizuna kirol instalazioetan erretzeko debekua hausten bada. Onartutako legearen arabera, erantzukizuna, erretzailearena ez ezik, baita arau haustea egiten den kirol lokal, zentro edo establezimenduaren titularrarena ere bada³. Izan ere, Legeak arau haustetzat jotzen baitu, besteak beste, *“erabateko debekua dagoen tokietan erretzen uztea”*. Horri dagokionez, ohar garrantzitsu bat egin behar da kirol instalazio publikoen kasurako: “lokal, zentro edo establezimenduaren titularra herri administrazio bat baldin

² Ikus *Noticias de Gipuzkoa*, 2005eko abenduaren 24koa, *El Diario Vasco*, 2005eko abenduaren 30koa, edo *Mundo Deportivo*, 2006ko urtarrilaren 2koa.

³ Legeak zentroaren titularrak dihardu, baina ez du zehazten kontzeptu hori, eta horrek, seguru asko, interpretazio arazoak ekarriko ditu elkarren segidako lagapenak izan ohi dituzten kirol instalazioetan.

bada, administrazio horrek erantzungo du, aparte utzita horrek gero bere agintariei eta zerbitzuko beste langileei egindakoaren erantzukizuna eskatzen dien edo ez”.

Erantzukizun horren ondorioz galdera bat sortzen da ezinbestean, alegia, ea zer egin dezaketen edo zer egin behar duten kirol instalazioen arduradunek, baldin eta erabiltzaileek edo ikusleek erretzeko debekua betetzen ez badute. Nahasmenik handiena, ordea, beste kontu honek sortzen du: ea zeinek zaindu behar duen Legea betetzen dela⁴. Legeko 22.2. artikulua dioenez, *“autonomia erkidegoetako organo eskudunek... kontrol eta ikuskapen lanak egin behar dituzte, ofizioz edo alde batek eskatuta; era berean, zigor espedienteak bideratu eta zigorrak ezarri behar dituzte”*. Hau da, kirol instalazio baten titularrak kontrol eta ikuskapen zerbitzuetan salatu ditzake kirol instalazioetan erretzeko debekua betetzen ez duten horiek. Orobat, eta Legea hausteko modu bat *“erabateko debekua dagoen tokietan erretzen uztea”* denez gero, kirol instalazioaren titularrak, erretzeko debekua hausten ari dela ohartarazi ondoren, berak edo bere langileen bitartez, kirol instalaziotik kanpora bota ditzake debeku hori betetzen ez duten erabiltzaileak edo ikusleak, eta neurri hori ezartzeko laguntzarik behar izanez gero, agintaritzaren agenteei eska diezaieke laguntza.

Azkenik, adierazi behar da bosgarren xedapen iragankorrean ere berariaz aipatzen duela Legeak kirola: *“Tabakoaren produktuen publizitatea eta babesa hedabide guztietan debekatzeak ez ditu barne hartuko, hiru urteko aldiaren, lege hau indarrean sartzen denetik aurrera kontatuta, motorraren kirol lehiaketan eta ekitaldi mugaz gaindikoetan parte hartzen duten ekipoek beren jantzietan, osagarrietan, tresnetan, ekipamenduetan, prototipoetan eta/do ibilgailuetan jartzen dituzten publizitatea eta babesa”*.

⁴ Adierazgarriak dira, oso, estatu mailako nahiz bertako hedabide ugari egindako erreportajeak. Adibidez, *El Diario Vasco* egunkariak 2006ko urtarrilaren 4an egindako erreportajea. Kazetariak balizko egoera bat jarri eta hari buruz galdetu zien hainbat administraziori, eta ondorio hau atera zuen: *“ia ezinezkoa da arau hauste bat salatzea, eta ez dago arau hausteak antzemateko ikuskatzailerik”*.